

MOTELA

Agertokia: Miriku baten etxea

JAUN MIRIKUA
MUTHILA
ANDERE TANTOMERGO
IXIDRO, hunen seme motela

I

JAUN MIRIKUA: Ez dakit zer gertatzen den! Jendea ez da batere eritzen eskualde hotan. Uste dut ofizio txarrena hartu dudan, mirikuntza hartuz. Hobe nukeien aise kontrabandixgia hartu banu! Hiru egun hautan ez dut pratikarik ikusi ere. Ahatik batto plantakoa agertzen bazait, hitz eta promes diot ez dutala huts eginen: jornal ederra atherako diot... (*Trinn*) Hau fortuna! Bada norbait athean!

II

(*Muthila heldu da*)

MUTHILA: Jaun mirikua, Andere Tantomergo bere semearekin ea errezibitzen ahal ditzun...

JAUN MIRIKUA: Baietz, bai...

III

JAUN MIRIKUA: Har gaiten seriocki (bere soinekoak eta oro antolatzen ditu, eta airerik handienak hartzen, dena pretensione... miraila behar eta hola) Bon! Hola ontsa izanen niz!...

IV

(*Ama-semeak heldu dira. Anderea, emazte azkar txapeldun bat, eskuara paristar mintzatzen duela... gaitza... Semea iduri zozoa, arrunt motela...*)

ANDERE TANTOMERGO: Agur, Jaun miriiku handia! Ene errespetuak presentatzen daukitzut...

JAUN MIRIKUA: Agur, Andre! Agur, jauna!

IXIDRO: A... a... a... gu... gu...

ANDERE TANTOMERGO: Othoi, Ixidor, zaude ixilik!

JAUN MIRIKUA: Ene seme hau biziki nekatua da, eta hobe du hitzik ez erraitea.

JAUN MIRIKUA: A?... Eta... Zer da ba?

ANDERE TANTOMERGO: Horra, Jaun mirikua! Ttipi-ttipitik, usaia trixte bat badu, ez baitakigu batere noiz, non hartua duen, mintzatzen hasten den pundutik mihia loditzen bezala zaio, trabatzen zaio, eta halako debeku suerte bitxi bat senditzen du mihi, hagin, ezpainetan! Eztea hala?

IXIDRO: Ba... ba... ba... a... a... a...

JAUN MIRIKUA: Ba... ikhusten dut zer den: semea motela duzu.

ANDERE TANTOMERGO: Motela?... O! Jauna, hanixko erraiten duzu, ene semea motela dela! Ez, ez Jauna, ez; ene semeak ez du motel dudarik batere. Moteldura gaitz izigarria da; gure familian ez dugu holako eritasun itsuririk izaiten ahal! Ez Ixidro ez da batere motela: baxharrik burrustan heldu zaizko gogorat, eta gero ahotik ezin atheratuz, alabainan, zinak eta minak ditu!

JAUN MIRIKUA: Bai, eta orduan hitzak noiztehinka doblatzen eta erredoblatzen ditu?

IXIDRO: Ba... ba... ja... ja... jaun... mi... mi... ku... ku...

ANDERE TANTOMERGO: Haurra ez zitela hola neka! Zaude ixilik. Nihaurek esplikatuko diot Jaun mirikuari zer den zure eritasuna!

JAUN MIRIKUA: Orai konprenitzen dut andre! Zure semeak ez du ez, moteldura itzalik ere. Gutartean erredobladura erraiten diogu eritasunxkila horri.

ANDERE TANTOMERGO: Ba, Jauna, eta artetik erran dezazudan, erredobladura horri ohartu girelarik garen aita eta ni, gauza bat jin zauku gogorat: hitz erredoblatu zonbatekin mintzaraziko ginuela eta holaxe ez zela hanbat ezagunen izanen haren delako desarratamendu ttipia!

JAUN MIRIKUA: Biziki ideia ona izan duzue eta gain-gainetik felizitatzen zaitut!

ANDERE TANTOMERGO: Bai, Jauna, eta nola gure Ixidro seme maite hunek harritzeko izpiritua baitu, berehala ikhasi ditu; jarri erraiteko plazan irakasi diogu ttotto; lorearen orde, lili; minaren orde, mimi; haragiaren orde, txitxi; bulharraren orde, ttitti; arroltzaren plazan, kok o; haurraren orde, nini; ilhar-basaren orde, baba.

JAUN MIRIKUA: O! Zoin ederki pentsatu duzuen: segur niz orotako atxeman dituzuela hitz doble horiek: gogo, txotxo, lolo, mama, mumu...

ANDERE TANTOMERGO: Bibi, oñoñ, kuku...

IXIDRO: Kaka, pipi...

ANDERE TANTOMERGO: Othoj, haurra, zaude ixilik. Ez zitela neka... ñir-ñir; ttin-ttin; pil-pil..

JAUN MIRIKUA: Txatxa, papa...

IXIDRO: Pin-pin, pan-pan...

ANDERE TANTOMERGO: Ixidro, ez duzu ontsa konprenitzen! Ez dut nahi hitzik athera dezazun!

JAUN MIRIKUA: Ontsa, Andre! Orai ezagutzen dugu muthiko horren gaitza! Baina zer nahi zinuen ba nik egitea?

ANDERE TANTOMERGO: Jauna, gure muthiko hunek bere hogoita bi urtheak bethe ditu, hala iduri ez duelarik...

JAUN MIRIKUA: Bai, biziki gazte emaiten du!

ANDERE TANTOMERGO: Eta pentsatzen dugu garen aita eta biok, behar giniokeela emaztegei bat atxeman. Hartu nahi lukeen batto begizatua dugu eta bihar nahi ginituzke alegia deus ez gure bi gazte hoik errekontrarazi. Ez dea hala mumu?

IXIDRO: Ba... ba... ba... a... a...a...

JAUN MIRIKUA: Segur ohantza ederra du, andereño horrek, nor baita ere, zure seme horrekin ezkontzea!

ANDERE TANTOMERGO: A! Jauna, tantomergorrek badugu fama, ohore eta diru: zer behar da gehiago!

JAUN MIRIKUA: Deus ez andre, osagarria baizik!

ANDERE TANTOMERGO: Ba eta kantu pollit bat eman-araziko diogula bazkal ondoan andere horren biltzeko! Nahuzu Jaun mirikua, eman diezazun kantaño hori?

JAUN MIRIKUA: Bai, gogotik...

ANDERE TANTOMERGO: Ea, Ixidro xuti zaite. Eman dezagun Jaun mirikua emaztegei: ea nola kantatuko duzun?

IXIDRO (*sekula baino zozoago, begi handi batzuekin, esku eskuina bihotzean, tente potente: airea: Lau gauzak*):

Bebebebebe behazadazu enini-ni maitea!

Susususuan bebebebero bebebero ikatza!

Ni-ni-ni-ni-nik bebebeberdin bibibibi bihotza!

Nanananahi nunununuke zureskuku kukua!

ANDERE TANTOMERGO: Ez dea kantu pollita?

JAUN MIRIKUA: Ba, biziki pollita, sentimenduz eta adimenduz bethea.

ANDERE TANTOMERGO: Baina aho-debeku hori khentzen ahal bazinio, miletan hobe ginuke! Ez duzuia deusik egiten ahal?

JAUN MIRIKUA: Errazu Andre, baditake zainek egiten dioten... Ea, haurra, hurbil hunat: ea, mihia? Edo beso hori. Hola, orai, zaude zure zango eskuinaren gainean! Errazu hiru aldiz: koska.

IXIDRO: ko... ko... ko...

JAUN MIRIKUA: Huna, pikura bat eginen diogu eta behar bada on eginen dio: badakizu Andre, arrainek ez dutela ez moteldurarik ez eta erredoblaturarik; izokinaren erraietan kausi ditake errekitu berezi bat, holako gaitzeri ihardokitzeko partikularra dena. Ene

kusiaren ihizi zakurrak izigarri sainga makurra baitzuen, errekitu horrekin txertatu dugu eta gaixo alimalea arrunt sendatu!

IXIDRO: A...ma. A... ma e... ez dut nahi.

ANDERE TANTOMERGO: Haurra! Ez zitala hola kexa! Ama hor duzu, zure aldean! Nehork ez dautzu minik eginen: zure onetan ari gira, Ixidro, zure onetan!

JAUN MIRIKUA: Besoa ager-ozu ondoraino (*lauzpabortz barneko atheratzen diozka Andere Tantomergok, Ixidro daldaratzen delarik... Jaun mirikuak, anrtean, harrigarriko tresnak atheratzen diteu... Azkenean, Andere Tantomergok atxikitzen du muthikoa eta mirikuak ponpa batekin, alegia txertatzen du*).

IXIDRO (oihu bat): Uste nuen min gehiago eginen zautala!

ANDERE TANTOMERGO: Jesus! Sendatua zira!

IXIDRO: Ez dakit sendatua nizanez, baina halako hotz arin on bat sarthu zait zainetan eta iduritu zait on egin zautala!

ANDERE TANTOMERGO (belhauniko): Jaun mirikua, eskerrak dauzkitzut, salbatu nuzu! Ene jaun Tantomergo aitoren semearen partez, esker mila.

IXIDRO: Ene aita Tantomergo aitoren semearen partez, esker mila.

ANDERE TANTOMERGO: Ene semearen izenean, mileskher.

IXIDRO: Ene amaren izenean, mileskher.

JAUN MIRIKUA: Ahalgetua niz hoinbertze esker onez! Xuti zaitezte hortik. Eta zuk, Andre, kasu huni: ene pikurak zainetan egin dio bere ondorioa, baina zainak gauza minbera dira, asalda erraxak; sekulan jauz balazkio, uste gabeko izialdura batek harturik, edo hotz bat sarthurik, edo berri handi zerbaiteki harriturik, berriz gas litake lehenagoko eritasuna.

ANDERE TANTOMERGO: Jaun merikua, kasu handia eginen dugu: berri onak eta txarrak zetabetuko ditugu; ez dugu oihu bat bertzea baino gorago eginen; erranen diogu sehiari ez ditzan baxerak hauts Ixidroren aintzinean; emaztegeiaren letrak ere irakurriko ditugu, ez dezoten, zer gertha ere, bihotza pentzuz eman; gatu bat ekarriko dugu selaurean, gauza garratoinik ez entzuteko... O! Bai, jauna, hitz dautzut izialdura eta harridura gizia urrunduko dizkagula.

JAUN MIRIKUA: Ederki, andre! Zuharek ere, kasu; adixkidea!

IXIDRO: O, bai, jauna, ene amari obedituko diot ponduz pondu.

ANDERE TANTOMERGO: Orain, jaun mirikua, nahi nuke jakin zonbat den zure pena!

JAUN MIRIKUA: Ez du presarik: nota igorriko dautzut etxerat...

ANDERE TANTOMERGO: Ez, Jaun mirikua, berehala nahi ditut gauzak antolatu... Beraz, zonbat zor zitugu?

JAUN MIRIKUA: Hamabortz mila libera.

ANDERE TANTOMERGO eta IXIDRO: Zonbat?

JAUN MIRIKUA: Hamabortz mila!

IXIDRO: A... a... ma... be... be... be... rriz... mo... mo... mo... tel du... dua niz.